

bidegileak



Maritxu Urreta (1915)

Egilea:

NEREA AZURMENDI

Emakume aurreratua

*M*aritzu Urreta Zulaika donostiarrak ez du ondo ulertzen zer dela eta izan dezaketen inolako interesik bere bizipenek. Ez zaio batere gustatzen bere buruaz hitz egitea. Soinak eman dio ezustekoren bat azken urteetan, jasan ditu adinaren ajeak, baina ume-umetatik erabili izan dituen argazki-kameren begia bezain zehatza du adimena hurbildu gatazkaizkionean, 2005eko neguan; igo dituen ehunka gailurretako haitzak bezain zorrotza begirada, horren gogoko dituen zeru zabalak bezain argia. Oroitzapenak ere txukun-txukun ditu ordenatuta, ia bederatzi hamarkadaz bildu dituen seiluak eta egin dituen 7.000 inguru argazkiak bezain ondo



Maritzu Urreta (1915)

sailkaturik. Kostatzen zaio, ordea, horiek azalera. Bereak ditu, beretzat gorde nahi ditu, baina oparitu dizkigu baten batzuk, umore fin eta zorrotzean bilduta. Gehiegizko apaingarririk gabe, argitaratu dituen ilustrazioen eta itzulpenen modura. Bidegilea, bera? Ez du horrelakorik uste. Bere bidea egin du, ez besterik. Horixe dio. Hala ere, berak ere onartu beharko du, xx. mendearen hasieran jaiotako emakumea izanik, beste askoren aurretik egin izan dituela hainbat bidetan urrats asko eta asko.

Enbor bereko ezpala

Maritxu Urreta Zulaika Donostian jaio zen, 1915 urtean. Arantzazu izena jarri zioten pontearen gurasoek, Gipuzkoako zaindaren egunaren biharamunean jaio baitzen, baina Maritxu izan da beti. Zubieta kalean bizi ziren Miguel Urreta eta Maria Zulaikaren aurreneko alaba izan zen Maritxu. Alaba zaharrenak bizpahiru urte zituela, Idiakenez kalera joan zen familia, eta berehala hasi zen handitzen. Urte gutxiko tartean, Maritxuren ondoren Mikel anaia zein Carmen eta Rosario ahizpak etorri ziren mundura.

Azken urteetan adinak ukatu dizkionak kenduta (mendizaletasuna, bidaiak luzeak...), bizitza osoan eutsi die umetan hartutako zaletasunei Maritxu Urretak. Jakin-minari eutsi dio, batik bat; txiki-txikitan piztu zitzaion ikasteko eta ikusteko grinari. Eta horietako zaletasun askoren jatorrian aitaren eragina antzeman daiteke.

Miguel Urreta Etxebeste ez zen, ez, nolana izan gizona. 1881 urtean jaio zen, Usurbilen, eskualdean oso ezaguna zen familian. Ingeniari-tza ikasketak egin zituen Deustuan eta, ikasketak amaituta, teila lantegia ireki zuen Lasarte-Orian. Haren interesen eremua, ordea, ez zen lanbidearen ingurukoetara mugatu, ezta gutxiago ere. Oso gaztetan murgildu zen politikagintzan, eta 1913an Donostiako Udaleko zinegotzi hautatu zuten. Mirentxu jaio zen urte berean, berriz, Gipuzkoako diputatu.

GBBko kide izatera heldu zen Miguel Urreta ezaguna izan zen garai nahasi haietan joera desberdinetako politikariekin batera lan egiteko zuen gaitasunagatik zein izaera bateratzaile eta baretzailea izateagatik. Fama zuen, halaber, hizlari bezala, eta makina bat hitzaldi eman zituen gerra aurreko urteetan, euskaraz beti, Euskal Herri osoan barrena: politikaz, euskalgintzaz, nekazaritzaz... Hain zuzen ere, lan handia egin zuen baserritarrak lan-molde



Zazpi urte bete gabe zeuzkan Maritxuk argazki hau egin ziotenean. Neska txikiari igartzen zitzaion ordurako, jarreran eta begiradan, ez zela erraz kikiltzen diren horietakoa

berritzaileetara egokitzeko. Euskalgintzaren alorrean, «Eusko-Esnalea» elkarteko kide izanik, esku-hartze zuzena izan zuen Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren sorrera ekarri zuen 1918ko Oñatiko biltzar entzute-tsan. Gerra aurreko urteetan ere euskalgintza biziki sustatu zuen Gipuzkoan. Besteak beste «Euskaltzaleak» kultur elkarteko buru izan zen eta, hainbat urtez, sortzen lagundu zuen *El Día* Donostiako egunkarian zutabe bat idatzi zuen astero-astero. Elizaren babespean argitaratu zen *Agere* neska gazteei zuzendutako argitalpen bitxiaren sortzaileetako bat izan zen, halaber. Kirolerako, argazkilaritzarako eta beste hainbat zaletasunetarako astia ere bazuen, gainera. «Gizon modernoa zen aita», dio Maritxuk, berrikuntzaren baten berri izan orduko haren bila abiatzen zela gogoratuz, maiz horrek etxea alferrikako trastez betetzea ekartzen bazuen ere.



Hitzetik hortzera darabil Maritxuk Miguel Urreta aita zenaren izena. Harengandik jaso zituen landu dituen zaletasun gehientsuenak eta bere izaeraren ezaugarri ere baden jakin-mina

Ama, berriz, Maria Zulaika zuen, Donostian jaioa eta, aitaren moduan, pertsona ekintzaila. Gipuzkoako «Emakumeen» buru izan zen, eta ordu ugari eman zituen Donostiako kaiko arrantzaleen emazteekin lanean. Ingu-



Gerra garaian Azkainen egindako argazkian, Mikel anaia falta da soilik familiaren irudia osatzeko. Erdian, ama, alboan Aita Donostia anaia duela. Maritxu, Carmen eta Rosario, hiru ahizpak, amaren eskuinean. Atzealdean, arreta beste zerbaitek erakarriko balio bezala, aita



Maritxuk 11 urte zituela egindako argazki honetan ez da bera ageri. Frantzia aldean zebilen nonbait frantsesa ikasten. Argazkia familiak Lasarten zuen *Mirentxu* etxean egin zen 1926an, Miguel Urretak ume-taldearen erdian ageri den Arturo Kanpionen omenez antolatutako ekitaldi batean. Eskuinetara dagoen taldetxoan, aurreneko neskatila Rosario da, bigarrena Carmen eta, horren atzean, Mikel anaia

E

ruan zuten familia, haatik, ez zen guraso eta anai-arrebetara mugatzen. Aita seme bakarra izanik, alde horretatik osaba-izebarik ez zuten Urreta Zulaika neska-mutikoek, baina amaren aldeko osaben kopuruak erraz orekatzen zituen kontuak, Maria Zulaikak bederatzia anaia baitzituen, neska bakarra bera izanik. Horietako bat, munduratzan hirugarrena, Jose Gonzalo zen (1886-1956), 1902 urtean Lekarozko kaputxinoen komentuan nobizio arropak jantzi zituenean Frai Jose Antonio de San Sebastian izena hartu zuena. Handik urte batzuetara, euskararekiko grina piztu zitzaionean, Aita Donostia izenak ordezkatu zuen aurrekoa, eta izen horrekintxe ezagutzen dugu Euskal Herriak eman duen musikaririk onentsuenetakoa izateaz gain herri musikaren altxorra berreskuratzen eta zabaltzen lan eskerga egin zuen kaputxinoa, Maritxuren eta haren anai-arreben amaren aldeko osaba.

Luzeegi jo dugu, agian, familiaren inguruko kontuetan. Beti da garrantzitsua etxean jasotakoa, noski, baina kasu honetan pentsatzeakoa da bizi osorako izan duela eragina lau anai-arrebengan umetako giro pizgarri hark. Donostiako etxean zein aitak, artean ezkongabe zela, Lasarten eraiki zuen «Mirentxu» etxean, garaiko kontu berrienak jasotzeko eta hainbat pertsonaia ospetsu ezagutzeko aukera izango zuten ume haiek, Maritxuk barne. Txikitik ikusi zuten, seguruenik, toki interesgarria zela mundua.

Bizialdi osorako zaletasunak

Amak eta amonak bezala, Maritxu, Carmen eta Rosario ahizpek Donostiako San Bartolome ikastetxean egin zituzten 16-17 urte bitarteko ikasketak. «Orduan ikasten zirenak...», gogoratzen du, gehiegi zehaztu gabe, Maritxuk. Ahizpek berehala erakutsi zuten musikarako zaletasuna eta trebezia. Maritxuk, ez horrenbeste. Errazago etortzen zaizkio kirol saioen eta beste gai batzuen inguruko oroitzapenak musikari buruzkoak baino...

Ikastea oso atsegin zitzaion, haatik, eta ikasle txarra ere ez zen izango mojek, behin eta berriro, maistra ikasketak egin beharko lituzkeela esaten bazioten. Orduan ere, hitz gutxi eta zehatzekin argitu zuen auzia: ikastea zuela gogoko, alegia, ez irakastea.

Batez ere, hizkuntzak ikastea. Umetan ekin zion frantsesa ikasteari, eta ingelesa ere ikasi zuen ikastetxean. Eta, hizkuntzen inguruko grina horretan ere, aitaren itzala. Hamabi urte zituenerako, astero jasotzen zuen etxean *La Semaine de Suzette* gaztetxoentzako aldizkaria, aitak harpide eginda. Haren bitartez hobetu zuen frantsesa eta, bide batez, aldizkariari atxikitako *Bleuette* panpinarentzako jantziak eginez josten ere ikasi zuen. Frantziatik ez zitzaizkion bakarrik hizkuntza umetan bereganatzea ahalbidetu zion aldizkaria eta panpina heldu. Paristik bueltan, halako batean, kilo bat seilu ekarri zizkion aitak,



Hemeretzi urte zituela Ingalaterrako Folkestone herrira joan zen ingelesa hobetzera. Handik hirurogei urtera egindako argazkian, hilabete haiek igaro zituen etxeko aurrealdean



eta orduz geroztik hazi baino ez da egin Maritxuren seilu-bilduma bikaina.

Ingelesa hobetze aldera, 19 urte zituela garai hartan nahiko ezohikoa zen bidaia egin zuen Maritxu Urretak, hainbat hilabetetako egonaldia burutu baitzuen, bakarrik, Ingalaterrako Folkestone hirian. Emakume adeitsu eta zintzo batzuen etxean eta haien ardurapean utzi zuten, noski, joaneran lagun izan zituen gurasoek. Ingelesa ez zen beste hizkuntza batean hitzik ez zuela esango agindu eta, inguruan gaztelaniaz mintzatzen ziren adiskideak bazituen ere, bete egin omen zuen emandako hitza... Gerora, alemana eta italiara ere ikasi zituen. Besteak beste, hizkuntza horietan idatzitako liburuak jatorrizko bertsoan irakurri ahal izateko.

Hizkuntzek ez ezik, arteak ere izan zuen garrantzia Maritxuren gaztetako prestakuntzan eta hurrengo urteetako jardunean. *Txiki Zabalo* (Manchester 1892-Londres 1948) ilustratzaile eta kartelgile ospetsuaren ikasle izan zen, alegia, gerra aurreko urteetan.

Oro har, gazte-gazterik hasi zen garatzen bizi osozko izango zituen zaletasunak:

1935eko argazki honen atzealdean ageri den *Txiki Zabalo* ilustratzaile eta kartelgile handiarekin ikasi zuen marrazten eta margotzen une hartan egiten ari zen lanaren aurrean azaltzen den Maritxuk.



«Egunen batean nonbaitetik ihes egin behar badut, izango naiz behintzat moldatzeko gauza», pentsatu omen zuen rappela egitea proposatu ziotenean



Gazte-gaztetatik zituen gogoko mendia zein eskia

margotzea, irakurtzea, argazkigintza, mendizaletasuna... Maritxu Urretarentzat horixe dira: zaletasunak. Horrexegatik ez die ematen aparteko garrantzirik, eta horrexegatik kostatzen zaio ulertzea zer dela-eta izan dezaketen interesik bera ez den besteren bantentzat. Baliteke interesgarriak izatea, besteak beste, XX. mendearen aurreneko hamarkade-

tan, gure inguruotan, rappela egitera ausartzen zen neska gazte batek aitzindari puntu bat ere bazuelako, baina Maritxu Urretak eguneroko gauza balitz bezala begiratzen dio bera izan zen neska gazte hura hormatzar batean sokatik zintzilik erakusten duen argazkia, «zer du ba horrek apartekorik?» pentsatuko balu bezala.

Astia eta arreta zeregin ugaritan jartzen zituen hogeita bat urte betetzeko zegoen neska gaztea zen Maritxu 1936ko gerra piztu zenean. Aralar aldean zebilen familia, berri txarrak zabaltzen hasi zirenean. Menditik urrundu eta hirira hurbildu ahala, okerrera egiten zuten notiziek. Aitak, ordurako, utzita zituen politikaren inguruko ardurak, baina ezer gutxi behar zen *zerrendetan* egoteko, eta ezer onik ez zekarten haietako batean zegoen, beste hainbatenekin batera, Miguel Urretaren izena. Gipuzkoa erori zenean, lantegia ere konfiskatuta, Lekeitiora joan zen familia, han etxea hartuta zeukaten senitarteko batzuegana. Emaztea eta seme-alabak Bizkaiko kostaldeko herrian zeuden bitar-

tean, Bilbon zen aita eta, han, itsasoratu eta erbestera bidea hartzea erabaki zuen. Zortzi egun ontzi baten zain egon ondoren, abiatu ziren azkenean Areetatik Baionara eta, egunen batzuk Lapurdiko hiriburuan igarotako ondoren, beste familia askoren modura hara eta hona ibili ziren Lourdesen, Pauen..., harik eta Donostiako lagun ugari Azkainen zeudela jakin eta, 1936ko abenduan, hantxe bizitzen jarri ziren arte. Azkainen igarotako hiru urte eta erdiak aipatzean, lagunarteko giroa, bizikleta-txango luzeak eta sosak zein arin joaten ziren du gogoan Maritxuk, gerraren eta erbestearen inguruko beste oroitzapen ilunago batzuk alde batera utzita, edo beretzat gordeta.



Gerra garaian, Azkaingo jaietan. Ezkerretik hasita, bigarrena da Maritxu. Carmen ahizpa du alboan eta altzoan sagarrez betetako azpila daukan neska beltzaranaren ondoan dago Rosario, ahizpa gazteena

Ilustratzaile

Erra amaitutakoan, familia ez zen zuzenean Donostiara itzuli. Etxera bueltatu aurretik, Alacanten egin zuten urtebete inguru. Itzuleran, noski, gauzak ez ziren abiatu zirenean ziren bezalakoak, baina Maritxu Urretak berehala ekin zien betiko zaletasunei. Berehala berregin ziren halaber Donostian gerak etenik utzi zituen lagunen arteko harremanak.

Esan bezala, gerra aurreko urteetan Txiki Zabaloren eskutik landua zuen berezkoa zuen marrazkilaritzarako trebezia. Gerraosteko urteetan, berehala aurki ditzakegu Maritxu Urretak alor honetan egindako lanen aurrene-

ko arrastoak. Bere bi ilustrazio agertzen dira 1942 urtean Madrilgo Espasa-Calpe argitaletxeak kaleratu zuen *Euskaleriaren Yakintza* Resurreccion Maria de Azkueren liburuan. *Ipuin ta irakurgaiak* izenburua zeraman bigarren liburuan azaltzen dira, hain zuzen.



Resurreccion Maria de Azkueren *Euskaleriaren Yakintza* libururako 1942an egindako ilustrazioa. *Laminen azkena* ipuinari dagokio



Mendian josten diren adiskidetasun-harremanak sendoak omen dira. Emankorra izan da, eta sendoa izaten jarraitzen du, elkar mendian ezagutu eta elkarrekin maiz lan egin izan duten Jose Luis Muñoyerro idazle eta kazetari bizkaitarren eta Maritxu Urretaren arteko harremana

Konpainia ezin hobean egindako liburuan, aurreneko orrialdeetan agertzen den M. Urreta hark aurkezpen beharrik ez duten Ignacio Zuloaga, Valentin Zubiaurre eta maila handiko beste marrazkilari asko izan zituen lagun Azkuek bildutako kondairak irudiz edertu zituzten ilustratzaileen zerrendan. Aipatutakoez gain, Txiki bera, berrogeita hamar urte Kanbon igaro eta landa-giroko Euskal Herria marrazki bidez erretratatzeko guztiz trebea izan zen Pablo Tillac artista frantziarra eta beste.

Mirentxu Urreta izenarekin sinatu zituen *Laminen azkena* eta *Meza misteriozkoa* ilustratzeko egin zituen marrazkiak. Marrazki garbiak, argiak, lerro beltz fin eta arinekoak,

alferrikako xehetasunik gabeak, kontakizunaren mamira zuzen-zuzenean doazenak.

Bizitzaren hariak gehienetan era nahiko nahasian gurutzatzen direnez, Maritxu Urretak ilustrazioaren alorrean egindako hurrengo lanera heltzeko mendira jo behar dugu, mendia da-eta Maritxu agertzen den argazki gehienetako paisaia.

Mendian josten diren adiskidetasun-harremanak puntada sendoz lotuta gelditu ei dira. Egia da hori Maritxu Urretak eta Jose Luis Muñorreyo kazetari eta idazle bizkaitarrak mendiko lagun-giroan josi zuten adiskidetasun-harremanaren kasuan, mendian ez ezik lanean ere behin baino gehiagotan ibili baitira

elkarrekin. Eta eusten diote oraindik aspaldiko harremanari Maritxuk, Jose Luis Muñoyerrok eta horren familiak.

1965 urtean, *Pasos sobre el fuego-11 peregrinos vascos a Compostela* liburua argitaratu zuen Muñoyerrok. 30. zenbakia du liburua Iruñeko Gómez argitaletxearen Ipar bilduman. Kazetaria bera tartean zela, hamaika laguneko talde batek 1954an Bilbotik Santiagora egindako erromesaldiaren kronika halakobat da liburua. Idazlearen oroitzapenei Mari-

txu Urretak jarri zizkien irudiak. Aurreko lanean bezala, paisaiak iradokitzeke behar ziren trazuak bakarrik, ibilian hartutako apunteen bizitasuna eta arintasuna zutenak, nahiz eta bera ez izan, 1954ko hartan, Santiago bidea egin zuen taldekoa. Pentsatuak eta landuak, haatik, Maritxuk berak duen alean gordeta zeuden zirriborro originalen eta liburura eraman ziren behin betiko marrazkien arteko aldea ikusita.

Bada atal honen eta hurrengoaren artean banatu beharreko lan bat, marrazkigintza eta itzulpengintza uztartzen dituen. Hurrengorako utziko dugu, bada.



Liburu bereko *Meza misteriozkoa* ipuinerako egin zuen beste marrazki hau



Muñoyerroren *Pasos sobre el fuego* libururako egin zituen ilustrazioetako bi

Itzultzaile

Beste hizkuntza batzuk ikasteko, ahaleginak egin behar izan zituen Maritxu Urretak. Euskara, berriz, etxean jaso zuen. Bere zaletasun eta egiteko gehienak piztu zituen aitak euskararen alde egindako lana kontuan harturik, hizkuntza bera ez ezik euskararekiko maitasuna ere umetatik behar bere-berea. Baina garai haietan ez zen ohikoa euskaraz idazten ikastea. Familia askotan, ez galtzea ere nahikoa...

Gerraostean, aurreneko emanaldia 1940ko apirilaren 10ean eskaini zuen Koruko Ama Birjinaren Scholla Cantorum —Eskola—, donostiar gazte askoren bilgune izan zen. Urretatarrek musikarekin zuten harreman estua kontuan izanik, hara bildu ziren sorterrira itzultitakoan, beste askoren moduan.

1945etik 1950era sekulako arrakasta izan zuten «irudiak» antzeztu zituen Eskolak: Egu-berritako Irudiak, Pasioko Irudiak, Eukaristia Irudiak... 200dik gora lagun biltzen ziren,



Lagun talde zabala Lekarotzen, Aita Donostiaren inguruan bildurik. Bigarren ilaran dago Maritxu, ezkerreko muturrean

abeslari, aktore, dantzari eta musikari. Donostian lortutako arrakastaren ondorioz, beste hiri batzuetan ere aritu zen Eskola taldea bere ikuskizuna aurkeztzen. Eta hantxe zebilen Maritxu Urreta, nahiz eta musikak ez erakarri Carmen eta Rosario ahizpak erakartzen zituen moduan. Ikastea horren gogoko zuen Maritxuk, ordea, berehala aurkitu zuen jakin-mina nora bideratu.

Scholla Cantorumen inguruko giroan esan zioten Maritxuri ordurako itzal eta sona handiko irakaslea zen Maria Dolores Agirrek euskara irakasten zuela etxean, eta hara abiatu zen. Beste hizkuntza batzuetan iaioa izanik, etxekoa ere landu behar, noski.

1903 urtean Errezilen jaioa, maistra ikasketak burutu zituzten aurrenetako emakume haien taldekoa zen Maria Dolores Agirre, eta erabateko euskaltzalea. Ikasketak bukatu eta berehala, Donostiako Udalak 1915ean euskal antzerkia bultzatzeko Euskal Izkera eta Iztunde Ikastolara hurbildu zen Maria Dolores Agirre, ikasle moduan aurrena. Miguel Urreta Donostiako Udaleko zinegotzi zela sortu zen Euskal Iztundea, besteak beste udalean eta udaletik kanpo kide eta lagun zuen Abelino Barriola zinegotzi eta euskaltzalearen eraginez eta Toribio Alzagaren zuzendaritzapean. Gerra garaiko etenaldiaren ondotik, 1941 urtean Toribio Alzaga ere hila zela, Maria Dolores Agirrek hartu zuen Euskal Iztundearen ardura, baina lehenagotik ere hasia zen etxean

euskarazko eskolak ematen. Euskararen alde lan egiteko, eta etxeko diru-sarrerak biribiltzeko. Etxean, Euskal Iztundean, Ate-neoan..., hainbat tokitan erakusten zuen euskara Maria Dolores Agirrek. Eta ez nolana, metodo eta material landuak erabilita baizik.

Gerra ondorengo aurreneko urteetan nekez helduko zen gerra aurreko ehundik gora ikasleak izatera. Talde txikian egindako saioekin akordatzeko da Maritxu Urreta, eta tarteka bera bakarrik ere ibiltzen zela badu gogoan. Halaxe hobetu zuen euskara, eta halaxe ikasi zuen hizkuntza ahotik paperera eramaten. Eta orduz geroztik berrogeita hamar urte igaro badira ere, Maria Dolores Agirrek miresten eta zabaltzen zuen euskara garbi, atsegin eta herrikoia maite du gaur ere Maritxuk, trakeskeriarik, erdarakadarik eta mordoilokeriarik gabea.

xx. mendearen erdialdera, ari zen Maritxu euskara maistra bikain haren laguntzaz hobetzen eta gainerako zaletasunak ere lantzen: mendi-gailurrak urratzen, paraje berriak ezagutzen, umetan hasitako argazki-bilduma handitzen eta beste hainbat lanetan. Gaur egun ere miresmenez aipatzen duen Maria Dolores Agirreraren laguntzaz ikasitakoa Jose Luis Muñozerro adiskidearen lan bat euskaratzeko erabili zuen 1960 urtean: Zarauzko Itxaropena argialetxeak Kuliska Sortan argitaratu emandako *Lartaun eguzki-semea* itzultzeko, alegia. Lan horretan, berak edo beste

norbaitek erabakita, bataiarrian jarritako Arantzazu izenaz agertzen da Maritxu.

Hurrengo itzulpen-lanean, bere zereginetan garrantzi handia izandako bidaideekin batera agertzen zaigu Maritxu Urreta: Jose Luis Muñoyerroekin eta Maria Dolores Agirrerekin. 1967 urtean, *En la luna también se habla vascuence* liburua argitaratu zuen Muñoyerrok, eta Maritxu Urretak eta Maria Dolores Agirrek *Ilargian ere euskeraz* bilakatu zuten. Liburu bitxia izan zen hura alde askotatik begiratuta. Josu Zabaletak Madrilen egin ziren Espainiako Estatuko Hizkuntzen Arteko Literatur Itzulpenari buruzko Jardunaldietan




Gorbeia menditik ilargira, ez da bidaia makala



Ilustratu eta, Maria Dolores Agirrerekin batera, euskaratu zuen *Ilargian ere euskeraz* liburuaren azala

aurkeztu zuen ponentzian (Senez aldizkariaren 8. zenbakian dago argitaratua), hirurogeiko hamarkadan dezente zabaldu zen joera baten lekuko modura aipatzen du: euskal gaieko gaztelaniazko literatura euskarara itzultzearen aldeko joera, hizkuntza bietako bertsioak aldi berean argitara zitezen.

Gaiaren aldetik ere bitxia da liburua. 2003. urtean, *Hegats* aldizkariaren 32. zenbakian argitara emandako *Zenbait gogoeta zientzia fikzioaren inguruan* lanean, aitzindarien artean jartzen du Muñoyerroren lana Iban Zalduak, jatorrizko bertsioa gaztelaniazkoa zela kontuan harturik betiere. Edonola ere, edizio bikoitza baliatuta irakurleei euskarazko liburu




Gizontxo berdeak ere baziren garai hartan ilargian

entretengarri bat eskaintzea zen Muñoyerrok Urreta eta Agirrereren laguntzaz lortu nahi zuena. Publiko zabalarari zuzendutako abentura eta zientzia fikziozko liburu askorik ez zen orduan merkaturatzen euskaraz. Muñoyerrok ere, ordura arte, gai mitologiko eta historikoak lantzen zituen batik bat.

Gaur egungo irakurlearen ikuspegitik, Zaldudak berak azpimarratzen duen izaera naif samarra du Muñoyerrok eleberrri labur hartarako asmatu zuen istorioak. Gorbeia mendipeko baserri batean jaiotako Andoni gaztea kontratatzen du estatubatuar aberats batek —hogeita bost mila dolarren truke— *Moon Operation* operazio sekretuko buru

izateko... Hortik aurrera, denetarik: Turtu Beltz taldeko gaiztoak, gizontxo berdeak, Ternura abiatuko balira bezala ilargira abiatzen diren euskaldun kementsuak... Norbaitengan zalantza piztu bada, ez kezkatu: ondo amaitzen da abentura. Lurretik ilargirako joan-etorria egin zuten bi ontziek San Mamesen hartu zuten lur, Athleticen eta Realaren arteko partido bat jokatzeko ari zen bitartean. Ontzi bietako tripulazioek, lurreratu aurretik, espazioko jantziak erantzi eta ezpata-dantzari arropak jantzi zituen, balentria euskal erara ospatzeko, dantzan.

Eta hori guztia, noski, Apolo XI espazio-ontzia ilargira iritsi baino bi urte lehenago. Horixe zen erronka, liburua inor ilargira heldu



Liburua argitaratu zenean Apolo XI. ilargira heltzeko bi urte falta ziren arren, honela irudikatu zituen Maritxu Urretak astronautak

baino lehen amaitzea. Amaitu zuten, eta de-
zente hurbildu zen lana itzultzeaz ez ezik
ilustrazioak egiteaz ere arduratu zen Mari-
txu astronauten jantziak nolakoak izango zi-
ren asmatzera.

Ez zion hurrengo urteetan munta horretako
lan gehiagori ekingo, baina itzultzeari ere ez
zion erabat utziko. 1976 urtean Gipuzkoako
Argazkilari Elkarteko aldizkariko editorialak
euskaratzen hasi zen eta, hutsik egin gabe,
zintzo-zintzo, bere beste zaletasun handieta-
ko batekin zerikusituz zuzena zuen lanari eutsi
dio, orain dela urte gutxi batzuk idazmakina
baztertu duen arte.

Azkeneko itzulpen luze eta lantsua EIZIE Eus-
kal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien
Elkarteak eskainitako omenaldiaren harira
egin zuen, 1997 urtean. Aurreko urtean, 1996an,
ohorezko itzultzaile izendapena eman zien
EIZIEk euskalgintzaren eta euskal literatura-
ren alorreko zenbait pertsonaia handiri: Maria
Dolores Agirrerri, Lino Akesolori, Pedro Be-
rrondori, Jean Diharce *Iratzederri*, Jon Etxaide-
ri, Eusebio Erkiagari, Jaime Kerexetari eta San-
tiago Onaindiari. Itzultzaile haien «lanarekiko
aitorpen bezala ez ezik, beste itzultzaileontza-
ko eta lan honetan hasiko direnentzako ikas-
bide bezala ere», omenduen itzulpen zatiz
osatutako *Itzulpen Antologia I* liburua argitara-
tu zen. Liburuaren aurkezpen ekitaldi berean,
beste zortzi lagun izendatu zituzten ohorezko
bazkide: Jose Basterretxea *Oskillaso*, Jean Ha-

ritschelhar, Jose Antonio Retolaza, Juan San
Martin, Luis Villasante, Piarres Xarriton, Augus-
tin Zubikarai eta Maritxu Urreta. Bere burua
goraipatzea batera gogoko ez duen Maritxu
Urretak ezin izango du ukatu izendapena be-
zain ohorezkoa izan zuela konpainia EIZIEk
eskainitako omenaldian.


Izendapenarekin batera, omendutako itzul-
tzaileen lanak bilduko zituen bigarren liburu
bat argitaratzeko konpromisoa hartu zuen
elkarteak, eta handik urtebetera ikusi zuen ar-
gia *Itzulpen Antologia II* liburuak. Libururako
propio ekarri zuen ingelesetik euskarara Ma-
ritxuk, 82 urte beteak zituela, Alice Duer Mi-
ller (1874-1942) idazle estatubatuarraren
poema luze bat: *The White Cliffs*, berak *Itsas-
malda zuriak* bilakatu zuena. «Jorge VI. Inga-
laterrako erregeari gehien gustatzen zitzaion
poema», Maritxuren hitzetan.

Ez zuen hautatu Maritxuk poema laburtxo
bat, hogeita hamaika orrialdeko lan mardula
baizik. Eta Jorge VI.a ez ezik, 1940 urtean ar-
gitaratu zenean milaka irakurle txunditu zi-
tuen II. Mundu Gerraren eragina pairatzen
ari ziren Atlantikoaren alde bietan soldadu
ingeles batekin ezkonduko neska estatuba-
tuar baten istorio erromantikoak.

Maritxu Urretak bere betiko euskarara eka-
rri zuen poema. Jatorrizkoa berrogeita ha-
mar ahapalditik gorakoa bada ere, aurrene-
koa jaso dugu soilik, lagin modura:



EIZIEk argitaratutako *Itzulpen Antologia II* liburuaren azala



Alice Duer Millerren *White Cliffs* poema moduan emandako kontakizun luzea *Itsas-malda zuriak* bihurtu zuen Maritxu Urretak

The White Cliffs

I

I have loved England, dearly and deeply,
 Since that first morning, shining and pure,
 The white cliffs of Dover I saw rising steeply
 Out of the sea that once made her secure.

I had not thought then of husband or lover,
 I was a traveller, the guest of a week;
 Yet when they pointed «the white cliffs of
 Dover»,
 Started I found there were tears on my
 cheek.

I have loved England, and still as a stranger,

Here is my home and I still am alone.
 Now in her hour of trial and danger,
 Only the English are really her own.

Itsas-malda zuriak

I

Leendabiziko goiz argitsu ta garbian,
 Betidanik itsasoak babestu ditun
 Dover'ko itsas-malda zuriak ikusi ta,
 Maitasun sakonez Ingeleterra maite izan nun.

Ez senar, ez maitale nere asmoetan,
 Ikus-zale nintzan, astebeterako etorria;
 Alaz ere, «Dover'ko itsas-malda zuriak»
 ikustean,
 Arriturik, nere begiak lañoz bete ziran.

Ingeleterra maite izan det, eta oraindik
 arrotz,

Emen nere etxea eta oraindik bakartiar,
 Latzaldi ta galbide garaiean, orain,
 Ingelesak ber-berak bakarrik egiazko dira.

Aparteko emaitzarik lortu ezean, mendian ibiltzeak eta argazkigintzarako zaletasuna izateak ez diote, berez, ekarpen handirik egiten inoren curriculumari. Maritxu Urreta ez da, konparazio batera, 8.000ko batera heldu den aurreneko emakumea, eta haren argazkiak ere ez daude zintzilikatuta munduko museorik famatuenetan. Lan handia egin du, ordea, alor bietan. Batean zein bestean, ez du nahikoa izan gogoko zituen denbora-pasak lantzearekin, eta buru-belarri aritu da Donostiak bi eremu horietan dituen elkarte nagusietan: Vasco de Camping Elkartearen eta Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen.



Zailtasun handiagoko abenturatan ere murgiltzen zen, gogotsu. Maritxu zein den antzematea ez da zaila: neska bakarra

Zazpi urte zituela oparitu zion aitak argazki-makina Maritxuri, eta orduantxe hasi zen begien aurrean zeukana argazkitan egonkortzen. 7.000 inguru argazki ditu gordeta. Aitak egin eta errebelatutakoak ere, asko. Argazkigintzan 1922 urtean hasia izanik, teknika berri ugariaren sorreraren lekuko izan da, eta badirudi —horien kopurua ikusita— diapositiba izan dela gehien liluratu duena. Gaietan, denetarik, baina bat nagusi: natura eta, batik bat, mendia.



Denboraldi bakarrean ehun gailur urratzeak izan zuen saririk

Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko kiderik beteranoena da Maritxu Urreta. Beteranoena zen ia 2000 urteko abenduan Elkarteko barne-aldizkarirako elkarrizketatu zutenean. Hasiera batean lau argazki zale donostiarrek bultzatutako ekimena izan zen Gipuzkoako Argazkilari Elkartea sortzeko aurreneko urratsak 1945ean egin ziren baina, urte haietako egoeraren ondorioz, lege aldetiko onespena ez zuen 1948ko apirila arte lortu. Elkartea abian jarri zuen lehen belaunaldi hartakoa da Maritxu Urreta, 1949an egin

baitzen elkarteko kide. 70eko hamarkadaren hasieran Elkarteko lehendakari izatea ere proposatu zioten, baina uko egin zion ardurari, beste zeregin apalago batzuen alde eginenez. Zeregin horien artean barne-aldizkariaren ingurukoak aipa daitezke, esan bezala 1976 urtetik aurrera —duela urte gutxi utzi dio egiteko horri— berak euskaratu baitu buletinaren editoriala.

Mendiaren ingurukoetan ere ez da atzean gelditu Maritxu Urreta, ez da konformatu



Mendian egindako argazkiak dira nagusi Maritxu Urretaren argazki-albumean. Zoriontsu izan da tontorrez tontor gazte-gaztetatik



Marixuren bi zaletasun handi, mendia eta argazkigintza, berak egindako bi argazki hauetan bat eginik

ibilaldi erraz eta erosoekin. Gogoan du, besteak beste, nola egin zuen, bakar-bakarrik, Donostiatik Lourdeserako sei eguneko ibilaldia, edo nola igo zen Mont Blanc Europa Mendebaldeko mendirik altuenera, gurean bederen goi-mendiarekin ausartzen ziren emakumeak oso urriak ziren garaietan.

Auto-gidari ere gaztetatik zenez, urtetan oso aurrera joan arte erabili izan duen autoa hartu eta hamabi aldiz joan izan da Suitzara, hango mendien eta paisaien bila. Bakarrik ere bai, nahiz eta Maritxuk bidaia haiek normaltasun osoz egiten zituen garaietan ema-

kume gutxi ausartu gure inguruotan bakarrik bidaiatzera, eta are gutxiago autoa hartu eta milaka kilometro egitera.

Donostian mendizaletasuna gehien sustatu duen elkarteetako bat 1950 urtean sortutako Vasco de Camping elkarte da, eta horren sorreran ere aurki daiteke Maritxu Urretaren aztarna. Bidasoaz haraindiko mendietara egindako bidaietan ezagutu zuten «camping» mendizale gazte haiek, eta abantailaz beteriko aukera iruditu zitzaaien naturan murgiltzeko eta konplikazio handirik gabe etxetik kanpo egun batzuk igarotzeko bidea



eskaintzen zien ohitura hura. Atzerritik ekarri zituzten aurreneko kanpin-dendak eta kanpinerako behar ziren gainerako traman-kuluak, eta lehendabiziko kanpaldiak ere antolatu zituzten. Ohitura kontuetan guztiz zorrota zen gizarte hartan, ez omen zuten guztiek begi onez ikusi gizonetzko eta emakumezkoak elkarrekin mendian libre uztea... Kritikak ere jaso zituzten, alegia, aurreneko kanpin zaleek. 50.eko hamarkadaren hasieran hamar-hamabost urte falta ziren

«hippy» hitza mundu osora zabaltzeko baina, seguruenik, berrikuntzak eskandalutzat jotzen zituztenek horrelako zerbaiten trazak hartuko zizkieten naturaz eta aisialdiaz gozatzeko olana zati batekin nahikoa zuten gizon eta emakume gazte haiei. Dena den, aurreiritzi eta kritikak ez ziren luzaroko izan, eta aitzindari haiek ere ez zuten etsi.

Nolabait, Maritxu Urretaren jardunaren isla ere bada pasadizo hori. Herrialdeen artekoak



Inguru natural ederrak non, Maritxu han. Aspaldi-aspaldikoa ere ez da argazki hau

izan ezik, ez dirudi Maritxu Urreta ohitura zuzenekin-eta zerikusia duten beste muga batzuk gainditu dituen emakumea denik. Zuzentasunarekin eta zentzuzko portaerarekin batere zerikusirik ez duten beste muga batzuei, ordea, ez die garaiko konbentzioek ematen zieten baliorik eman. Funtsezkotzat jo daitezkeen hainbat gaietan «tradiziotik» gehiegi aldendu gabe, hain zuzen, osasunak horretarako aukera eman dion arte txikitan piztutako grinak —bere garairako aurrerakoiak, zenbait— gainerakoek esango dutena-

ri gehiegi erreparatu gabe landu izan ditu, mamiari itxurari baino garrantzi handiagoa ematen diotenek egiten duten modura.

Maritxu Urretak gutxietsi egiten du erabat bizitza ekintzaile horren emaitza, ez dio aparte-ko baliorik ematen, bere oroitzapenetan dutena kendura. Emaitzak, hala ere, hortxe daude. Itzulpenak, ilustrazioak, sekulako argazki-bilduma eta, batez ere, XX. mendean ireki ziren bidak berrikuntzari batere beldurrik gabe zeharkatu zuen emakumearen lekukotasuna.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzazatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Maritxu Urretari
- Haren ahizpa Carmen eta Rosariori
- Mirentxu Etxebarria Urretari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2005eko abendua

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2375-8 (Lan osoarena)
84-457-2379-0

L.G.: BI - 3288-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística